

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

**ITZULPENA<sup>1</sup>**

---

Araua: 2008/122/EE zuzentaraua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2009ko urtarrilaren 14koa, kontsumitzaileak babesteari buruzkoa, turismo-erabilerako ondasunen txandakako baliatze-, iraupen luzeko opor-produktuen eroste-, birsalmenta- eta truke-kontratuetaiko zenbait alderdiri dagokionez

---

---

Ondorengo itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakunde (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiriarekin.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta honek ez du inolako balio juridikorik.

---

<sup>1</sup> Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratua, hauxe da: «*DIRECTIVA 2008/122/CE DEL PARLAMENTO EUROPEO Y DEL CONSEJO, de 14 de enero de 2009, relativa a la protección de los consumidores con respecto a determinados aspectos de los contratos de aprovechamiento por turno de bienes de uso turístico, de adquisición de productos vacacionales de larga duración, de reventa y de intercambio*» (*Diario Oficial de la Unión Europea, L 33 de 3/2/2009*)

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

2008/122/EE zuzentaraua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena

2009ko urtarrilaren 14koa

kontsumitzaileak babesteari buruzkoa, turismo-erabilerako ondasunen txandakako baliatze-, iraupen luzeko opor-produktuen eroste-, birsalmanta- eta truke-kontratuetakoz zenbait alderdiri dagokionez

(Testu egokia EEEren ondorioetarako)

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR BATASUNEKO KONTSEILUAK,

Europako Erkidegoa eratzeko Tratatuak, eta, bereziki, haren 95. artikulua aztertu dute,

Batzordearen proposamena aztertu dute,

Europako Ekonomia eta Gizarte Komitearen irizpena aztertu dute [1],

Tratatuko 251. artikuluan ezarritako prozedurari jarraitu diote [2],

Alderdi hauek hartu dituzte kontuan:

(1) Europako Parlamentuak eta Kontseiluak 94/47/EE zuzentaraua (1994ko urriaren 26koa, erosleak babesteari buruzkoa, higiezinak partekatutako denbora-erregimenean erabiltzeko eskubidearen erosketa-kontratuetakoz zenbait alderdiri dagokienez [3]) onartu zuenetik, higiezinak partekatutako denbora-erregimenean erabiltzeko joera hori garatu egin da, eta antzeko opor-produktu berriak agertu dira merkatuan. Opor-produktu berri horiek eta turismo-erabilerako ondasunen txandakako baliatze-erregimenearekin zerikusia duten transakzio jakin batzuk (besteak beste, birsalmanta-kontratuak eta truke-kontratuak) ez daude jasota 94/47/EE zuzentaraan. Gainera, 94/47/EE zuzentaraan aplikazioan lortutako esperientziak argi utzi du jasota zeuden zenbait alderdik eguneratu edo gehiago zehaztu beharra daukatela, inolako produkturik egin ez dadin zuzentara honetako xedapenak saihesteko asmoz.

(2) Araudian dauden hutsuneek oso nabarmen desitxuratzen dute konkurrentzia eta arazo larriak sortzen dizkiete kontsumitzaileei; hortaz, barne-merkatuaren funtzionamendu ona eragozten dute. Komeni da, beraz, beste zuzentara eguneratu batek hartzea 94/47/EE zuzentaraaren lekua. Turismoa gero eta garrantzitsuagoa denez estatu kideetako ekonomietan, beharrezkoa da hazkuntza eta produktibitate handiagoa sustatzea turismo-erabilerako ondasunen txandakako baliatze-sektorean eta iraupen luzeko opor-produktuenean, arau komun jakin batzuk onartuta.

(3) Segurtasun juridikoa indartu eta barne-merkatuak eskaintzen dituen abantailak kontsumitzaileen eta enpresen guztiz eskura jarri nahi badira, beharrezkoa da estatu kideetako arloko legediak elkarri gehiago hurbiltzea. Hortaz, guztiz bateratu behar dira iraupen luzeko opor-produktuen salmenta-, birsalmanta- eta merkaturatze-alderdi jakin batzuk, turismo-erabilerako ondasunen txandakako baliatze-eskubideei lotutako beste batzuk, bai eta azken horien trukea ere. Ez da onartu behar estatu kideek beren barne-zuzenbidean izatea edo sartzeari zuzentara honetan jasotakoekin bat ez datozen xedapenak. Xedapen bateraturik ez badago, estatu kideek askatasun osoa izan behar dute erkidego-zuzenbidearekin bat datozen barne-zuzenbideko arauak izateko edo sortzeko. Hortaz, estatu kideek zenbait xedapen izan edo onartzeko aukera izan behar dute, besteak beste, uko egiteko eskubidearen erabilerak zuzentara honen aplikazio-esparruan sartzeari ez diren harreman juridikoetan dituen ondorioei buruzkoak, edo eragotzi egiten dutenak konpromiso loteslerik sartzeari edo ordainketarik izatea, alde batetik, kontsumitzailearen eta, bestetik, turismo-erabilerako ondasunen txandakako baliatze-zerbitzuen edo iraupen luzeko opor-produktuen hornitzailearen artean, harik eta kontsumitzaileak zerbitzu horien erosketa finantzatzeko kreditu-kontratua sinatu arte.

(4) Zuzentara honek ez du bazterten estatu kideek, Erkidegoko zuzenbideari jarraiki, zuzentarauko xedapenak erabiltzea haren aplikazio-esparruan sartzeari ez diren alderdietan. Horrenbestez, estatu kide batek zuzentara honetako xedapenei edo zuzentaraaren aplikazio-esparrutik kanpo dauden transakzioez hartan jasotako xedapenetako batzuei legezkiekeen barne-zuzenbideko arauak izan edo sartzeari izango luke.

(5) Beharrezkoa da argi zehaztea zuzentara honetan jasotako kontratuak, zuzentarauko xedapenei kasurik ez egitea eragozteko.

## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

(6) Zuzentarau honen xedeen ikuspuntutik, turismo-erabilerako ondasunen txandakako baliatze-kontratuek ez dituzte barruan hartzen ostatatzeko erreserba anitzak, hoteleko gelak barne; izan ere, erreserba anitz horiek ez dakarte berekin erreserba independenteei lotuta ez dagoen inolako eskubide nahiz betebeharririk. Turismo-erabilerako ondasunen txandakako baliatze-kontratuek, halaber, ez dituzte barruan hartzen alokairu-kontratu arruntak, azken horiek etenik gabeko okupazio-aldi bakar bati baitagozkie, eta ez aldi askori.

(7) Zuzentarau honen xedekak direla eta, iraupen luzeko opor-produktuen kontratuek ez dituzte jasotzen hotel-kate bateko hoteletan etorkizunean egingo diren egonaldietarako deskontuak eskaintzen dituzten ohiko leialtasun-sistemak, sisteman egotea ez baita kostu-bidez lortzen, eta kontsumitzaileak ordaindutako prezioaren helburu nagusia ez baita deskontuak edo beste abantaila batzuk lortzea ostatatzean.

(8) Zuzentarau honek ez du eraginik Kontseiluaren 90/314/EEE zuzentzarauan xedatutakoan; zuzentarau hori 1990eko ekainaren 13koa da, eta bidaiak konbinatuei, opor konbinatuei eta zirkuitu konbinatuei buruzkoa [4].

(9) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2005/29/EE zuzentzarauak —2005eko maiatzaren 11koa, enpresek barne-merkatuan kontsumitzaileekin dituzten harremanetan erabil ditzaketen merkataritza-jokabide desleialei buruzkoa (“Merkataritza-jokabide desleialei buruzko zuzentzaraua”) [5]— debekatu egiten ditu enpresen eta kontsumitzaileen arteko merkataritza-jokabide engainagarri, erasokor eta desleialak. Turismo-erabilerako ondasunak txandak baliatzearekin, iraupen luzeko opor-produktuekin, salmentarekin eta trukearekin zerikusia duten produktuen eta merkataritza-jokabideen zer-nolakoa dela eta, erabaki zehatzagoak eta espezifikagoak hartu behar dira informazio-betebeharrei eta salmenta-ekitaldietarako gonbidapenek. Kontratu-aurreko informazioari eta kontratuari buruzko xedapenak zehaztu eta eguneratu egin behar dira. Kontsumitzaileak kontratua egin aurretik informazioaren berri jakiteko aukera izan dezan, informazio hori une horretan erraz eskuratzeko moduan eman behar da.

(10) Kontsumitzaileak kontratuaren aurreko informazioa eta kontratua berak dakien eta aukeratu duen hizkuntza batean jasotzeko eskubidea izan behar du, eta merkatariek ez diote ukatu behar eskubide hori. Gainera, kontratua errazago gauza eta bete dadin, beharrezkoa da estatu kideei baimena ematea kontsumitzaileari kontratua beste hizkuntza batzuetan ere eman behar zaiola erabakitzeko.

(11) Kontratuari jarraiki zer eskubide eta betebeharrak dituen osorik ulertzeko aukera izan dezan, epe bat eman behar zaio kontsumitzaileari, nahi badu hari uko egiteko inolako justifikazio beharrik eta kosturik gabe. Gaur egun, epe hori desberdina da estatu kideen arabera, eta esperientziak argi uzten du ez dela nahikoa 94/47/EE zuzentzarauan adierazitako iraupena. Hortaz, komeni da epe hori luzatzea, kontsumitzaileari babes-maila handia ematea eta kontsumitzaile nahiz merkatariei kontuak gehiago argitzea lortzeko. Bateratu egin behar da epearen luzapena, eta gauza bera egin behar da uko egiteko eskubidea erabiltzeko moduei eta erabilera horren ondorioei dagokienez.

(12) Kontsumitzaileak baliabide eraginkorrak izan behar ditu, merkatariek betetzen ez baditu ere kontratu-aurreko informazioari edo kontratuari dagozkion xedapenak; zehazki, kontratuak eskatzen den informazio guztia jaso behar duela eta kontsumitzaileak kontratua egiten denean haren kopia bat jaso behar duela esaten dutenak. Estatuako legedian ezarritako bitartekoen gain, kontsumitzaileak uko egiteko epearen luzapena izan behar du, merkatariek informazio hori eman ez badio. Kontsumitzaileak luzapenean uko egiteko eskubidea erabiltzeko aukera izan behar du, inolako kosturik gabe, edozein direla ere izan dituen zerbitzuak. Informazio-betebeharrak betetzen ez badira, uko egiteko epea amaitzeak ez du eragotzi behar kontsumitzailea ordaina lortzen ahalegintzea legedi nazionalak aurreikusitakoaren arabera.

(13) Zuzentarau honetan ezarritako epeak kalkulatzeko, Kontseiluaren 1182/71 erregelamendua (EEE, Euratom) aplikatu behar da, 1971ko ekainaren 3koa, epeetan, datetan eta baldintzetan aplikatu daitezkeen arauak zehazten baititu [6].

(14) Kontsumitzaileen babes indartzeko, beharrezkoa da zehaztea debekatuta dagoela merkataritari edo hirugarrenei aurrerakinak ordaintzea uko egiteko epean. Birsalmenta-kontratuei dagokienez, aurrerakinak ordaintzeko debekua salmenta benetan gauzatu edo birsalmenta-kontratuak bukatutzat jo bitartean aplikatu behar da, baina estatu kideek aurrerantzean ere askatasun osoa izan behar dute bitartekariei azken ordaintzak egiteko aukera eta moduak arautzeko, birsalmenta-kontratuak amaitutzat jotzen bada.

(15) Iraupen luzeko opor-produktuei lotutako kontratuei dagokienez, eta epekako ordaintza-plan baten barruan ordaindu behar den prezioan, kontuan har liteke hurrengo zenbatekoak lehen urtea igaro ondoren egokitzeak aukera, epe horien benetako balioari eusten zaiola bermatzeko; adibidez, inflazioa kontuan hartzeko.

(16) Kontsumitzaile batek uko egiten badio kontratu bati, eta kontratu horretan merkatariek edo hirugarren batek (hirugarren horren eta merkatariearen artean hitzartutakoaren arabera) emandako maileguak estaltzen badu prezioa osorik edo zati batean, mailegu-kontratuak kontsumitzaileak inolako kosturik izan gabe amaitzea aurreikusi behar da.

## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

Printzipio bera aplikatu behar da merkatariak edo hirugarren batek (hirugarren horren eta merkatariaren arteko akordioan oinarrituta) emandako ildo bereko beste zerbitzu batzuei dagozkien kontratuetan.

(17) Kontsumitzaileak ez du egon behar zuzentarau honek ematen dion babesak izan gabe, kontratuari aplikatu dakiokkeen legedia estatu kide bateko legedia bada. Kontratu bati zer legedi aplikatu behar zaion nazioarteko zuzenbide-erlako erkidego-arauen arabera zehaztu behar da, bereziki Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 593/2008 (EE) erregelamendua kontuan hartuta —2008ko ekainaren 17koa, kontratuzko betebeharretan aplikagarria den legeari buruzkoa (Erroma I) [7]—. Erregelamendu horri jarraiki, aplikagarria izan daiteke hirugarren herrialde bateko legedia; zehazki, merkatariak kontsumitzaileengana jotzen dutenean, kontsumitzaileak bizi diren herrialdea ez den beste batean oporretan daudela. Merkataritza-jokabide horiek zuzentarau honek ukitzen duen esparru osoan erabiltzen direnez, kontratuak zenbatekoak handiak izateaz gain, beste babes bat aurreikusi behar da egoera espezifiko jakin batzuetan (bereziki, estatu kideetako organo juridikzional batek kontratuaren gaineko eskumena daukanean), kontsumitzailea zuzentarau honek ematen duen babesik gabe gera ez dadin bermatzeko. Ikuspegi horrek agerian uzten du zer-nolako babes-behar bereziak dituen kontsumitzaileak zuzentarau honen aplikazio-esparruan sartzen diren kontratuen konplexutasun, iraupen luze eta garrantzi ekonomikoaren ondorioz.

(18) Zuzentarau honetan jasotako gaiak xedetat dituzten prozeduretan zer organo juridikzionalak duten eskumena erabakitzeke, Kontseiluaren 44/2001/EE erregelamendua kontuan hartuko da (2000ko abenduaren 22koa, eskumen judizialari eta arlo zibilean eta merkataritza-arloan ebazpen judizialak aitortu eta betetzeari buruzkoa [8]).

(19) Zuzentarau honek kontsumitzaileei ematen dien babesak guztiz eraginkorra izatea bermatzeko (bereziki, merkatariak kontratu-aurreko fasean eta kontratuan dauzkaten informazio-betebeharrak betetzeari dagokionez), beharrezkoa da estatu kideek zigor eraginkorrak, neurrikoak eta atzera-eragileak onartzea zuzentarau hau urratzen denerako.

(20) Beharrezkoa da zaintzea gaian (zuzenbide nazionalaren arabera) bidezko interesa duten pertsonak eta erakundeak bitarteko juridikoak izango dituztela zuzentarau honen urraketan aurkako akzioak abiarazteko.

(21) Beharrezkoa da estatu kideetan errekurso-prozedura egokiak eta eraginkorrak ezartzea kontsumitzaileen eta merkatarien arteko auziak konpontzeko. Horretarako, estatu kideek auziak epaiketaz kanpo konponduko dituzten erakunde publiko edo pribatuen sorrera sustatu behar dute.

(22) Estatu kideek zaindu egin behar dute kontsumitzaileei benetan jakinarazten zaiela zer xedapen nazional erabiltzen diren zuzentarau hau estatu bakoitzera egokitzeke, eta merkatariak eta kodeen arduradunak esparru honetan dauzkaten portaera-kodeei buruzko informazioa kontsumitzaileei ematera bultzatu behar dituzte. Kontsumitzaileen babes-maila handia izatea lortzeko, informazioa eman lekieke kontsumitzaile-erakundeek egiten diren portaera-kodeei buruz, eta haiekin batera idatz litezke kode horiek.

(23) Estatu kideak ez dira gai zuzentarau honen helburuak behar bezala betetzeko eta, beraz, hobeto lor daitezke erkidego-mailan. Horregatik, Erkidegoak neurriak har ditzake, Tratatu 5. artikuluan zehaztutako subsidiarotasun-printzipioaren arabera. Artikulu horrek berak araututako proportzionaltasun-printzipioa betetzeko, barne-merkatuak izan ditzakeen trabak kentzeko eta kontsumitzaile guztientzat babes-maila handia lortzeko beharrezko dena arautzera mugatzen da zuzentarau hau.

(24) Zuzentarau honek funtsezko eskubideak errespetatzen ditu, eta onartutako printzipioak betetzen ditu; bereziki, Giza Eskubideak eta Funtsezko Askatasunak Babesteko Europar Hitzarmenean eta Europar Batasuneko Funtsezko Eskubideen Gutunean onartutakoak.

(25) Erakundearen arteko "Legegintza hobetzea" [9] izeneko akordioko 34. puntuari jarraiki, estatu kideak zeinek bere taula egitera bultzatu nahi da, bai eta taula horiek argitaratzera ere, zuzentarau hau eta transposizio-neurriak nola datozen bat erakusteko ahal den neurrian, hori onuragarria izango baita bai estatuentzat, bai Erkidegoarentzat.

### HONAKO ZUZENTARAU HAU ONARTU DUTE:

#### 1. artikulua

#### Helburua eta aplikazio-esparrua

1. Zuzentarau honen helburua da barne-merkatuaren funtzionamendu egokian laguntzea eta kontsumitzaileek babes-maila handia izan dezaten lortzea, estatu kideetan turismo-erabilerako ondasunen txandakako baliatze-eskubideak eta iraupen luzeko opor-produktuak merkaturatu, saldu eta birsaltzeari lotutako alderdi jakin batzuez eta truke-kontratuez onartuta dauden lege-, arau- eta administrazio-xedapenak elkarri hurbiltzearen bidez.

## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

2. Zuzentarau hau merkatarien eta kontsumitzaileen arteko transakzioei aplika dakieke.

Zuzentarau honek ez du baztertzen honako hauek arautzen dituen legedi nazionala:

- a) kontratu-zuzenbideko errekurso-bide orokorrak;
- b) ondasun higiezin eta higigarrien erregistroa eta ondasun higiezinen transmisioa;
- c) ezarpen-baldintzak, baimen-erregimenak eta lizentziak emateko bete beharrekoak; eta
- d) zuzentarau honetan araututako kontratuen xede diren eskubideen izaera juridikoaren zehaztapena.

### 2. artikulua

#### Definizioak

1. Zuzentarau honi dagokionez, honako definizio hauek hartuko dira oinarri:

- a) “turismo-erabilerako ondasunen txandakako baliatze-kontratua”: urtebetetik gorako iraupena duen kontratua, zeinaren arabera kontsumitzaileak, kostu-bidez, okupazio-aldi batean baino gehiagotan gaua igarotzeko ostatu bat edo batzuk erabiltzeko eskubidea bereganatzen baitu;
- b) “iraupen luzeko opor-produktuen kontratua”: urtebetetik gorako iraupena duen kontratua, zeinaren arabera kontsumitzaileak, kostu-bidez, nagusiki ostatatzeari lotutako deskontuak edo beste abantaila batzuk lortzeko eskubidea bereganatzen baitu, dela ostatatzea soilik kontuan hartuta, dela harekin batera bidaiak edo beste zerbitzu batzuk ere kontuan hartuta;
- c) “birsalmenta-kontratua” kontratu honen bidez, merkatariak, kostu-bidez, laguntza ematen dio kontsumitzaile bati turismo-erabilerako ondasunen txandakako baliatze-eskubideak edo iraupen luzeko opor-produktu bat erosi edo saltzean;
- d) “truke-kontratua”: kontratu honen bidez, kontsumitzailea truke-sistema bateko kide bihurtzen da kostu-bidez, aukera ematen diolako ostatua edo beste zerbitzu batzuk izateko, turismo-erabilerako ondasunak txandaka baliatzeko daukan kontratuan sorburu duten eskubideen abantailak aldi baterako beste pertsona batzuei ematearen truke;
- e) “merkataria”: bere jarduera ekonomikoarekin, negozioekin, ofizioarekin edo lanbidearekin zerikusia duten helburuak lortzeko diharduen edozein pertsona fisiko edo juridiko, eta merkatari baten izenean edo kontura diharduen edozein pertsona;
- f) “kontsumitzailea”: bere jarduera ekonomikoarekin, negozioarekin, ofizioarekin edo lanbidearekin zerikusia ez duten helburuak lortzeko diharduen edozein pertsona fisiko;
- g) “kontratu osagarria”: kontratu honen bidez, kontsumitzaileak turismo-erabilerako ondasunen txandakako baliatze-kontratu batekin edo iraupen luzeko opor-produktu bati lotutako kontratu batekin zerikusia duten zerbitzuak bereganatzen ditu, zerbitzu horiek merkatariak ematen baditu edo, bestela, hirugarren batek (hirugarren horren eta merkatariaren artean hitzartutakoaren arabera);
- h) “euskarri iraunkorra”: tresna bat da, kontsumitzaileari edo merkatariari zuzenean helarazi zaion informazioa biltzeko aukera ematen diona (etorkizunean kontsulta ahal izan dezan, aldi egoki batez, informazio horren xedeetarako) eta bildutako informazioa aldaketarik gabe erreproduzitzeko aukera ematen duena.
- i) “portaera-kodea”: estatu kide bateko lege-, arau- edo administrazio-xedapenek ezarri gabeko akordio edo arau-multzo bat da, eta zehaztu egiten du nola jokatu behar duten kodea (merkataritzaren-jokabide bati edo gehiagori nahiz sektore ekonomiko jakin batzuei dagokienez) betetzeko konpromisoa hartu duten merkatariak;
- j) “kodearen arduraduna”: kode bat egitearen eta berrikustearen ardura duen edo kodea errespetatzeko konpromisoa hartu dutenek benetan betetzen dutela gainbegiratzeko ardura duen edozein erakunde (merkatari bat edo merkatari-talde bat barne).

## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

2. Turismo-erabilerako ondasunen txandakako baliatze-kontratuaren edo iraupen luzeko opor-produktu bat dela eta egindako kontratuaren iraupena kalkulatzeko (hurrenez hurren 1. paragrafoko a) eta b) idatz-zatietan zehaztutakoaren arabera), kontratua isilbidez berritzeko edo luzatzeko aukera ematen duen edozein kontratu-xedapen hartuko da kontuan.

### 3. artikulua

#### Publizitatea

1. Estatu kideek zaindu egingo dute publizitate guztian adierazten dela badagoela 4. artikuluko 1. paragrafoan adierazitako informazioa lortzeko aukera, bai eta hori non lor daitekeen ere.

2. Sustapen- edo salmenta-ekitaldi batean kontsumitzaileari zuzenean eskaini behar bazaio turismo-erabilerako ondasunen txandakako baliatze-kontratu bat, iraupen luzeko opor-produktu bati lotutako kontratu bat edo birsalmenta- edo truke-kontratu bat, merkatariak argi eta garbi adieraziko dio gonbidapenean ekitaldiaren zer-nolakoa eta merkataritza-helburua.

3. Gainera, 4. artikuluko 1. paragrafoan aipatutako informazioa uneoro egongo da kontsumitzailearen eskura ekitaldian.

4. Turismo-erabilerako ondasunak txandaka baliatzeko eskubideak eta iraupen luzeko opor-produktuak ezingo dira ez merkaturatu ez saldu inbertsio gisa.

### 4. artikulua

#### Kontratu-aurreko informazioa

1. Kontsumitzailea edozein kontratu edo eskaintzari lotuta geratu baino lehen, merkatariak garaiz eman beharko dio informazio zehatza eta nahikoa, argia eta ulergarria, era honetan:

a) turismo-erabilerako ondasunen txandakako baliatze-kontratu bada: I. eranskinean jasotako informazio-formulario normalizatuaren eta formulario horretako 3. zatian adierazitako informazioaren bidez;

b) iraupen luzeko opor-produktu bati buruzko kontratu bada: II. eranskinean jasotako informazio-formulario normalizatuaren eta formulario horretako 3. zatian adierazitako informazioaren bidez;

c) birsalmenta-kontratu bada: III. eranskinean jasotako informazio-formulario normalizatuaren eta formulario horretako 3. zatian adierazitako informazioaren bidez;

c) truke-kontratu bada: IV. eranskinean jasotako informazio-formulario normalizatuaren eta formulario horretako 3. zatian adierazitako informazioaren bidez;

2. Merkatariak doan emango du 1. paragrafoan aipatzen den informazioa, dela paperean, dela kontsumitzailearentzat sarbide errazekoa den beste edozein euskarri iraunkorretan.

3. Estatu kideek zaindu egingo dute 1. paragrafoan aipatzen den informazioa kontsumitzailea bizi den edo nazionala den estatu kideko hizkuntzan edo hizkuntzetako batean idazten dela (kontsumitzaileak aukeratutakoan), betiere Erkidegoko hizkuntza ofizialetako bat bada.

### 5. artikulua

Turismo-erabilerako ondasunak txandaka baliatzeko, iraupen luzeko opor-produktuak izateko, birsaltzeko edo trukatzeko kontratua.

1. Estatu kideek zaindu egingo dute kontratua idatziz egiten dela, paperean edo beste euskarri iraunkor batean, eta kontsumitzailea bizi den edo nazionala den estatu kideko hizkuntzan edo hizkuntzetako batean idazten dela (kontsumitzaileak aukeratutakoan), betiere Erkidegoko hizkuntza ofizialetako bat bada.

Hala ere, kontsumitzailea bizi den estatu kideak, gainera, hauek erabaki ahal izango ditu:

## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

a) kasu guztietan, kontratua kontsumitzaileari estatu kide horretako hizkuntzan edo hizkuntzetako batean ematea, betiere Erkidegoko hizkuntza ofizialetako bat bada;

b) turismo-erabilerako ondasunen txandakako baliatze-kontratua higiezin espezifikoki bati badagokio, merkatariaik ondasuna kokatuta dagoen estatu kideko hizkuntzara edo hizkuntzetako batera egindako kontratuaren zinpeko itzulpena ematea kontsumitzaileari, betiere hizkuntza hori Erkidegoko hizkuntza ofizialetako bat bada.

Merkatariaik salmenta-jarduerak egiten dituen lurraldeko estatu kideak erabaki ahal izango du kontratua kontsumitzaileari estatu kide horretako hizkuntza edo hizkuntzetako batean eman behar zaiola kasu guztietan, betiere Erkidegoko hizkuntza ofizialetako bat bada.

2. Bestalde, 4. artikuluko 1. paragrafoan aipatzen den informazioa kontratuaren zatia izango da, eta ez da aldatuko aldeek berariaz kontrakoa adierazi ezean, edo aldaketak zirkunstantzia ezohiko, ezin aurreikusizko eta merkatariaien borondatearen aurkakoen eraginez gertatu eta haien ondorioak, erabilitako ardura guztia gorabehera, ezin saihestuzkoak izan ezean.

Aldaketa horiek kontsumitzaileari jakinaraziko zaizkio kontratua egin baino lehen, paperean edo harentzat sarbide errazekoa den beste edozein euskarri iraunkorretan.

Aldaketa horiek esplizituki jaso beharko dira kontratuan.

3. Kontratuan, 4. artikuluko 1. paragrafoan aipatutako informazioa ez ezik, hauek ere jasoko dira:

a) aldeetako bakoitzaren nortasuna, helbidea eta sinadura, eta

b) kontratua noiz eta non egin zen.

4. Kontratua gauzatu baino lehen, merkatariaik esplizituki jakinaraziko dio kontsumitzaileari hari uko egiteko eskubidea dagoela, bai eta eskubide hori erabiltzeko epearen iraupena ere (6. artikuluan adierazia), hala nola debekatuta dagoela aurrerakinak ordaintzea epe horretan (9. artikuluan adierazia).

Kontsumitzaileak aparte sinatuko ditu kasuan kasuko kontratu-klausulak.

Kontratuak, aparteko dokumentu batean, uko egiteko formulario normalizatu bat izango du, V. eranskinean agertzen denaren arabera; haren helburua, 6. artikuluari jarraiki, uko egiteko eskubidearen erabilera erraztea izango da.

5. Kontsumitzaileak kontratuaren kopia bat edo batzuk jasoko ditu hura sinatzen denean.

6. artikulua

Uko egiteko eskubidea

1. Kontsumitzaileak, zuzentarau honetako xedapenak betetzen ez badira ere, legedi nazionalaren arabera dauzkan errekursoez gain, estatu kideek zaindu egingo dute kontsumitzaileak uko egin ahal izango diola, hamalau egun naturaleko epean eta inolako justifikazio beharrik gabe, turismo-erabilerako ondasunak txandaka baliatzeko, iraupen luzeko opor-produktuak erabiltzeko, birsaltzeko edo trukatzeko kontratuari.

2. Uko egiteko epea honela kalkulatu da:

a) kontratua edo aurretiko edozein kontratu lotesle egiten den egunetik aurrera, edo

b) kontsumitzaileak kontratua edo aurretiko edozein kontratu lotesle jasotzen duen egunetik aurrera, a) idatz-zatian adierazitako egunaren ondorengoa bada.

3. Uko egiteko epea honela amaituko da:

a) merkatariaik ez badu bete eta ez badio kontsumitzaileari eman idatziz, paperean edo beste edozein euskarri iraunkorretan, aparteko dokumentuan egindako uko egiteko formulario normalizatu bat 5. artikuluko 4. paragrafoan araututakoaren arabera, artikuluko 2. paragrafoan aipatutako egunetik kontatzen hasita urte bat eta hamalau egun naturaleko epean;

## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

b) 4. artikuluko 1. paragrafoan aipatutako informazioa, I. eranskinetik IV. eranskinera bitartekoetan jasotako informazio-formulario normalizatuak barne, ez bazaio eman kontsumitzaileari idatziz, paperean edo beste edozein euskarri iraunkorretan, artikuluko 2. paragrafoan aipatutako egunetik kontatzen hasita hiru hilabete eta hamalau egun naturaleko epean.

Gainera, estatu kideek zigor egokiak erabakiko dituzte, 15. artikuluari jarraiki; bereziki, uko egiteko epea amaitu ondoren, merkatariak ez baditu bete zuzentarau honetan aurreikusitako informazio-baldintzak.

4. Merkatariak bete badu eta kontsumitzaileari eman badio idatziz, paperean edo beste edozein euskarri iraunkorretan, aparteko dokumentuan egindako uko egiteko formulario normalizatu bat 5. artikuluko 4. paragrafoan araututakoaren arabera, artikuluko 2. paragrafoan aipatutako egunetik kontatzen hasita urtebeteko epean, uko egiteko epea kontsumitzaileak informazio hori jasotzen duen egunetik aurrera hasiko da. Era berean, 4. artikuluko 1. paragrafoan aipatutako informazioa, I. eranskinetik IV. eranskinera bitartekoetan jasotako informazio-formulario normalizatuak barne, kontsumitzaileari eman bazaio idatziz, paperean edo beste edozein euskarri iraunkorretan, artikuluko 2. paragrafoan aipatutako egunetik kontatzen hasita hiru hilabete epean, uko egiteko epea kontsumitzaileak informazio hori jasotzen duen egunetik aurrera hasiko da.

5. Truke-kontratua turismo-erabilerako ondasunen txandakako baliatze-kontratuarekin batera eta aldi berean eskaintzen bazaio kontsumitzaileari, bi kontratuetan uko egiteko epea bakarrik aplikatuko da 1. paragrafoaren arabera. Bi kontratuetan, uko egiteko epea 2. paragrafoko xedapenen arabera erabakiko da, xedapenak turismo-erabilerako ondasunen txandakako baliatze-kontratuari aplikatzen zaizkion neurrian.

### 7. artikulua

Uko egiteko eskubidea erabiltzeko moduak

Kontsumitzaileak uko egiteko eskubidea erabiltzeko asmoa badu, merkatariari jakinaraziko dio erabakia, paperean edo beste edozein euskarri iraunkorretan, uko egiteko epea amaitu baino lehen. Kontsumitzaileak V. eranskinean bildutako eta, 5. artikuluko 4. paragrafoaren arabera, merkatariarengandik jasotako atzera edo uko egiteko formulario normalizatuak erabili ahal izango du. Epea bete egingo da jakinarazpena uko egiteko epea amaitu baino lehen igortzen bada.

### 8. artikulua

Uko egiteko eskubidea erabiltzearen ondorioak

1. Kontsumitzaileak uko egiteko eskubidea erabiltzeak azkena emango dio aldeek kontratuan adierazitakoa betetzeko daukaten betebeharrari.

2. Kontsumitzaileak, atzera edo uko egiteko eskubidea erabiltzen badu, ez du inolako kosturik izango, eta ez da behartuta egongo uko egitea gertatu baino lehen egin ahal izan den zerbitzuari dagokion prezioa ordaintzera.

### 9. artikulua

Aurrerakinen ordainketa

1. Turismo-erabilerako ondasunak txandaka baliatzeko, iraupen luzeko opor-produktuak erabiltzeko eta trukerako kontratuei dagokienez, estatu kideek zaindu egingo dute debekatzen dela kontsumitzaileak aurrerakinak ordaintzea, bermeak eratzea, dirua kontuetan gordetzea eta merkatariari edo hirugarren bati zorra edo beste edozein ordain esplizituki aitortzea uko egiteko epea amaitu baino lehen, 6. artikuluan xedatutakoari jarraiki.

2. Birsalmenta-kontratuei dagokienez, estatu kideek zaindu egingo dute debekatzen dela kontsumitzaileak aurrerakinak ordaintzea, bermeak eratzea, dirua kontuetan gordetzea eta merkatariari edo hirugarren bati zorra edo beste edozein ordain esplizituki aitortzea salmenta benetan gauzatu edo birsalmenta-kontratua beste bide batzuk erabiliz amaitutzat jo baino lehen.

### 10. artikulua

Iraupen luzeko opor-produktuak erabiltzeko kontratuei dagozkien xedapen espezifikoak



## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

1. Iraupen luzeko opor-produktuetarako kontratuei dagokienez, ordainketa mailaz mailako ordainketa-plan baten arabera egingo da. Kontratuan zehaztutako prezioaren edozein ordainketa debekatuko da, mailaz mailako ordainketa-planaren arabera egindakoa ez bada. Ordainketak, litezkeen afiliazio-kuotak barne, urteko epetan banatuko dira, eta epe horiek guztiak zenbateko berekoak izango dira. Merkatariak ordainketa-eskaera bidaliko du idatziz, paperean edo beste edozein euskarri iraunkorretan, gutxienez epe bakoitza amaitu baino hamalau egun natural lehenago.

2. Bigarren epetik aurrera, kontsumitzaileak kontratua deuseztatu ahal izango du, inolako zigorririk izan gabe, merkatariari asmo hori jakinarazten badiu epe bakoitzari dagokion ordainketa-eskaera jaso eta hurrengo hamalau eguneko epean. Eskubide horrek ez ditu baztertzen indarreko legedi nazionalaren arabera kontratua deuseztatzeak dauden eskubideak.

### 11. artikulua

#### Kontratu osagarrien deuseztapena

1. Kontsumitzaileak turismo-erabilerako ondasunak txandaka baliatzeko edo iraupen luzeko opor-produktuak erabiltzeko kontratuari uko egiteko daukan eskubidea baliatzen badu, estatu kideek zaindu egingo dute automatikoki deuseztatuta gelditzen dela kontratu haren osagarritzko edozein truke-kontratu edo beste edozein kontratu osagarri, kontsumitzaileak inolako kosturik izan gabe.

2. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008/48/EE zuzentarauko 15. artikuluan xedatutakoa baztertu gabe (2008ko apirilaren 23ko zuzentaraua, kontsumorako kreditu-kontratuei buruzkoa [10]), prezioari osorik edo zati batean merkatariak edo hirugarren batek (hirugarrenaren eta merkatariaren artean hitzartutakoaren arabera) kontsumitzaileari emandako mailegu baten bidez aurre egin bazaio, mailegu-kontratu deuseztatu egingo da, kontsumitzaileak kosturik izan gabe, baldin eta kontsumitzaileak erabiltzen badu turismo-erabilerako ondasunak txandaka baliatzeko, iraupen luzeko opor-produktuak erabiltzeko, birsaltzeko edo trukatzeko kontratuari uko egiteko daukan eskubidea.

3. Estatu kideek kontratu horiek deuseztatzeari buruzko arau zehatzak onartuko dituzte.

### 12. artikulua

#### Zuzentzarauaren aginduzkotasuna eta aplikazioa nazioarteko kasuetan

1. Kontratuari aplikatu dakiokkeen legedia estatu kide batekoa bada, estatu kideek zaindu egingo dute kontsumitzaileak ezingo diela uko egin zuzentzaraui honek ematen dizkion eskubideei.

2. Araudi aplikagarria hirugarren herrialde batekoa bada, kontsumitzailea ez da geldituko zuzentzaraui honek ematen dion babesia izan gabe, foroko estatu kideak aplikatzen duen eran:

- kasuko ondasun higiezinetakoren bat estatu kide baten lurraldean kokatuta badago, edo

- ondasun higiezin batekin zerikusi zuzena ez duen kontratu baten kasuan, merkatariak bere merkataritzan edo lanbide-jarduerak estatu kide batean egin edo zehinahi bitarteko erabiliz jarduera horiek estatu kide batera zuzendu eta kontratua jarduera horien esparruan sartuta badago.

### 13. artikulua

#### Errekurtso judizial eta administratiboak

1. Estatu kideek, kontsumitzaileen interesa kontuan hartuta, zaindu egingo dute bitarteko egokiak eta eraginkorrak daudela merkatariak zuzentzaraui hau beteko dutela bermatzeko.

2. Aurreko 1. paragrafoan aipatutako bitartekoetan jasoko diren hainbat xedapen jarraiki, ondoren agertzen diren erakundeetako batek edo gehiagok (legedi nazionalak erabakitakoaren arabera) ahalmena izango dute ekintzak egiteko zuzenbide nazionalaren arabera organo jurisdikzional edo administrazio-erakunde eskudunetan, zuzentzaraui hau aplikatzeko xedapen nazionalak gauzatzen direla bermatzeko:

a) agintariak eta erakunde publikoak edo haien ordezkariak;

## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

b) kontsumitzaileak babesteko bidezko interesa duten kontsumitzaile-erakundeak;

c) jarduteko bidezko interesa duten lanbide-erakundeak.

### 14. artikulua

Kontsumitzailearentzako informazioa eta errekurtsio estrajudiziala

1. Estatu kideek neurri egokiak hartuko dituzte kontsumitzaileei jakinarazteko barne-zuzenbideko zer xedapenen bidez egingo den zuzentarau honen transposizioa eta, hala egokituz gero, merkatariei eta kodeen arduradunei eskatuko diete kontsumitzaileei jakinarazteko zein diren beren portaera-kodeak.

